

1991/2018 EBAZPENA, azaroaren 5ekoa, Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko ospitalez kanpoko arreta espezializatuko (Larzabal eta Pasaia) gainbegirale lanpostu bat izendapen askez betetzeko.

Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko ospitalez kanpoko arreta espezializatuko (Larzabal eta Pasaia) gainbegirale lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera:

OINARRIAK:

1.- Parte hartzeko baldintzak:

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

- a) Estatutario, funtzionario edo lan-kontratudun finkoa izatea Osakidetzako zerbitzu-erakunderen batean, eta plaza jabetzan edukitzea B1 lanbide-taldean.
- b) B1 lanbide-taldeari dagokion titulazioa edukitzea.
- c) B1 lanbide-taldean, gutxienez, 3 urteko lan-esperientzia edukitzea.
- d) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetzako Euskara Planean ezarritako gainerako betebeharrak.

2.- Kontuan hartuko diren merituenak

- Erizaintzako unitateak kudeatzeko esperientzia edo / eta prestakuntza.
- Taldeak antolatzen eta kudeatzen prestakuntza edo / eta esperientzia.
- Osabide Global agendak kudeatzen esperientzia edo / eta prestakuntza

3.- Euskararen ezagutza.

Euskararen erabilera Osakidetzan normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, eta berau garatzen duten arauak, xedatutakoaren arabera baloratuko da.

4.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Interesdunek Osakidetza - Euskal osasun zerbitzuko Donostialdea ESko Pertsonaleko Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak. Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango dute, Ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16 artikuluan adierazitako leku eta moduetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak (39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea)

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztiekin, eta dokumentatutako "curriculum vitae"-rekin batera, Donostialdea ESko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali beharko dute (Begiristain pasealekua, z.g. 20014 Donostia – Gipuzkoa). Dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Baldintzak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- d) Kontuan hartzeko meritu guztien fotokopia konpultsatua.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazi den bezala egiaztatzea CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala egiaztatuta badaude, beti ere izangaiak eskabidean horrela dela adierazi baldin badu.

5.- Balorazio Batzordea:

Balorazio batzorde bat osatuko da, batzordeburu zuzendari gerentea edo hark eskuordetzen duena izanik, eta hauexek izango dira partaideak: erizaintzako zuzendaria, pertsonaleko zuzendaria (berau izango da idazkaria, ahotsa eta botoa izango ditu) eta kide bi, izangaiari eskatutako titulazioa (B1) izan beharko dutenak.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagokion izendapena egiteko. Batzordeak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik arrazoitutako txostena osatuta, baldin eta hautagaiak eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak zerrendatuko dira, eta lanpostua beraietako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

6.- Hautatzeko prozedura:

Inolaz ere ezingo dira baloratu deialdiaren iragarkia EHAAn argitaratzen den egunean eduki ez diren merituak, ezta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen behar bezala aurkeztu eta egiaztatu ez direnak ere.

7.- Prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena.

Hemen hasitako prozeduraren amaiera (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), Osakidetzako Donostialdea ESIko zuzendari gerentearen Ebazpenaren bitartez egingo da, eta Osakidetzako intraneten eta web-orrian argitaratuko da. Era berean, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

8.- Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza - Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostian, 2018ko azaroaren 5ean.

ZUZENDARI GERENTEA
E: Pertsonaleko zuzendaria
(1052/2015 Ebazpena apirilaren 3koa)



DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA

PERTSONALEKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAL
Izpta. Esther LEZAGO SOLA



ELSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAHA
DEPARTAMENTO DE SALUD